 - Hipo- eta hiper-erreaktibilitatea soinu edo beste edozein estimulu sentsorialekiko. Baliteke soinu batzuek haurra izorratzea, soinua duen jostailu bai belarriaren kontra itsastea modu atipikoan, bera hartzea izorratzea edo bere gorputzaren kontra presioa nabaritzen duen tokietan sartzea, zenbait zapore edo ehundurek izorratzea, bainatu eta atzokolak edo ilea moztean negar egitea , etab.
 - Aktibitate maila oso altua edo oso baxua eta gaitasun motor fina zein lodian atzerapena izatea.
 - Haurrak jarrera motor errepikakorrak (astindura, norabiderik gabe paseatzea, kulunkatzea), jarrera atipikoak edo manierismo motorrak agertzea.
- Loia, jana eta arretarekin erlazionatutako funtzioen erregulazioak asaldatuak izatea.

(ANA, 2016).

Autismo La Garriaga Bartzelonako proiektuak bi direla sintoma nagusiak dio: Komunikazio eta elkarreragin sozialean ezgaitasun iraunkorrak izatea eta jokabide, interes edo ekintzetan patroir murriztaile eta errepikakorrak adieraztea. Horretaz gain, ANA elkarteak adierazitakoekin bat datozen beste hainbat xehetasun adierazten ditu [2. *Eranskina*].

4.3.4. *Ikergai hartutako haurren kasuak*

Aurrerago azalduko den moduan, lau ariketa planteatu dira. Haietako bi Dragons gelako haur guztiekin eraman dira aurrera irakasleari jarduera interesgarriak iruditu baitzitzaizkion denekin lantzeko eta horretarako probestu zituelako. Beste bi ariketak, ikergai hartu ziren bi haurrekin baino ez ziren landu. Lanean A eta B ikasleak deituko diegu.

A ikaslea neska eta gelako helduena da, 11 urtekoa. B ikaslea berriz, mutila eta gelako gazteena, 6 urtekoa.

4.3.4.1. *A ikaslea*

- Jokabideak:
 - Estimulu propiozeptiboak bilatzen ditu.
 - Lan gogorra eskatzen duten jarduerak lanean zentratzen laguntzen diote.
 - Oinetakoak eta galtzerdiak kentzen ditu kalera irteteen.
 - Oin-puntetan ibiltzen da.
 - Besarkadak jaso eta ematea gustuko du.
 - Urarekin eta zikintzen duen edozerekin jolastea gustuko du.
 - Txokolatea jaso ezin izateak antsietatea sorrarazten dio.
 - Intereseko jarduerak egiten ari badira beste ikasleengana hurbiltzen da haiekin batera egitera.
 - Aldaketak daudenean urduritzen da eta gauzak botatzeko joera du.
 - Panpinak ekartzen ditu klasera.
 - Jostailuak behin eta berriz antolatzen ditu beti ordena berbera jarraituz. Askotan bota egiten ditu gero bildu eta berriz botatzeko.
 - Ihes egiten du.

-
- Auto-erasotzen da bere burua eskuekin joz, burua hormaren aurka joz eta lurrera botaz eta lurraren kontra burua joz.
 - Ezagutzen ez dituen helduekin jarrera ahulagoa du.
 - Aulkietan igotzen da.
 - Arrazoi ezagunik gabe txalokatzen du.
 - Bere iletik tira egiten du.
 - Gustuko dituen jarduera eta egoerak:
 - Ikasgelan, gela sentsozialean, bere lan espazioan eta zonalde sortzailean egotea gustuko du.
 - Patioko baliabideak gustuko ditu.
 - Espazio zabalak gustuko ditu.
 - Moztea eta itsastea bezalako ariketak gustuko ditu.
 - Arbela digitala eta ordenagailuak gustuko ditu baina estresatu egiten da bertako jokoak amaitzen direla ulertzen ez badu.
 - Aurrera eta atzera zenbatzea gustuko du.
 - Abestea eta jokabide erritmikoak gustatzen zaizkio
 - Gustuko ez dituen jarduera eta egoerak:
 - Gustuko ariketak amaitu behar izateak antsietatea sorrarazten dio.
 - Errutinetan bat-bateko aldaketek antsietatea sorrarazten diote.
 - Klase barruan nahi duen tokira joateko aukera ez izateak frustrazioa eragiten dio.
 - Nahi duen zerbait izateko aukera ez izateak hor dagoela ikusten duen bitartean frustrazioa eragiten dio.
 - Urduritzen denean:
 - Gauzak botatzen ditu.
 - Oihukatzen du.
 - Jo egiten du ulertzen ez bazaitu.
 - Lurrera botatzen da.

- Lurrera bota eta inguruan duen guztiari ostikoka hasten zaio.
- Lan txokora itzultzen da.
- Komunikazioa:
 - Ez du ahozkotasunik.
 - Ez da gai nahiak adierazteko.
 - Ez da gai emandako informazioa prozesatzeko
 - Eskutik heltzen zaitu zerbait erakutsi nahi dizunean.
 - Bi hitzeko jarraibideak ulertzeko gai da.
 - Objektuak eta irudiak erabiltzen ditu erreferentzia gisa.
 - Hasiera eta amaiera pautatzeko semaforoak erabili.
 - Piktogramak erabiltzen saiatzen da.

4.3.4.2. *B ikaslea*

- Jokabideak:
 - Janariarekin jolasten du.
 - Zailtasunak ditu komunera joan ostean paperaz garbitzeko.
 - Mugimendua eskatzen duten jarduerak etengabe behar ditu bere errutinekin tartekatuta.
 - Klase-kideekin kontaktu fisikoa izatea gustatzen zaio baina ez daki noiz den aski. Gainerako ikasleengan etzaten da
 - Ez du zarata gustuko baina isila den inguruneetan zarata egiteko beharra du.
 - Oinetakoak eta galtzerdiak kentzen ditu.
 - Erabat bustitzeko joera du edozein unetan.
 - Janariarekin boloak egiten ditu.
 - Edozeinekin hitz egitera hurbiltzen da.
 - Irribarre egiten du denbora guztian, baita haserre edo triste dagoenean ere.
 - Arreta bereganatzen saiatzen da berari buruzko galderak eginez (“hau egin dezaket?”, “Eta ni? Ongi portatzen naiz?”, etab.).

-
- Lurrera botatzen da.
 - Gauzak lurrera botatzen ditu.
 - Janaria eta objektuak kentzen dizkie ikasleei.
 - Ihes egiteko joera du.
 - Gustuko dituen jarduera eta egoerak:
 - Burko handiak.
 - Patioko baliabideak.
 - Pisuekin jolastea.
 - Klase-kideekin kontaktu fisikoa.
 - Ariketa sentsozialak.
 - Sorbaldan masajeak.
 - Ur-jolasak.
 - Ordenagailuak. Baina estimulatzaileegiak dira berarentzat.
 - Heldu batetik bestera joatea.
 - Bikotez aldatzea.
 - Toki lasaiak distrakzio gutxirekin.
 - Sormenezko ariketak.
 - Mugitzea.
 - Gauzak sortu eta eraikitzea.
 - Autoak eta liburuak.
 - Tren multzoak egitea.
 - Jolas sinbolikoak.
 - Irudiak kopiatzea.
 - Egoera kritikoak.
 - Txokolatea.
 - Galtzea.
 - Gustuko ez dituen jarduera eta egoerak:
 - Soinu altuak.
 - Espazio oso beteak
 - Ezetz esatea.
 - Lagunekin ez egotea edo lagun berarekin denbora gehiegiz egotea.

- Gero zer egingo den ez jakitea.
- Aldaketa prozesua egoera batetik bestera.
- Ariketa batean denbora luzez jardutea.
- Gustukoa den ariketa bat amaitzea edo gehiegizko estimulazioa jasotzea.
- Urduritzen denean:
 - Adurtu edo listua botatzen du.
 - Jo, harrapatu, atzamarka egin, ostikoak jo edo zaplaztekoak ematen ditu.
 - Negar egiten du.
 - Jokabide desegokiak agertzen ditu heldu desberdinen aurrean.
 - Aurretik berarekin lanean aritu diren helduei jarrera ikasien patroiak adierazten dizkie haiengandik jokabide okerrarekiko arreta edo erantzun bat jasotzeko.
 - Mehatxuak egiten ditu jo edo min egitearekin.
- Komunikazioa:
 - Hitz egiten du.
 - Oso ozen hitz egiten du.
 - Hizkuntza erraza eta errepikakorraren bidez argibideak adierazi.
 - Berak esandakoa errepikatu behar zaio ziurtatzeko hori zela esan nahi zuena.
 - Esaldiak berregiten lagundu behar zaio nahiak eta beharrak egoki adierazteko.
 - Aukera-xaflak (aukera ona eta aukera txarra adierazten zaizkio bakoitza bere ondorioekin eta aukeratzen uzten zaio) eta denbora neurtzaileak erabili behar dira ondorioak ezagutzeko eta ekintza egiteko duen denbora zein den jakinarazteko.
 - Objektuak erabili haiei erreferentzia egiteko.

4.4. Unitate didaktikoaren atal nagusiak

Nafarroako Curriculumean hezkuntza artistikoa irakasgai ez derrigorrezkoa bezala adierazten da. Eskola bakoitzari dagokio honen irakaskuntza sustatu nahi duen ala ez erabakitzea (Galdon, 2014).

Horretaz gainera, gaiaz azaltzen dena irakurriz gero, arte hezkuntzaren inguruan oso era eskas eta azaleko batean aritzen dela ikus daiteke. *Análisis crítico del modelo de evaluación LOMCE/ Critical analysis of evaluation model LOMCE* lanean, José Luis Bernalen esanetan, curriculum hau “sormenarekin akabatzeko sortutako eredia da” (Bernal, 2015. 15. orr) non garrantzia irakasgai instrumentalek duten (matematika, gaztelania eta literatura, gizarte zientziak, natur zientziak eta atzerriko lehen hizkuntza) eta “haurren garapen pertsonalari dagozkion ebaluazioak ahazten diren ebaluazio estandarizatueta zentratzeko” (Íbidem).

Mar Ferragutek ere iritzi hori du eta *“La educación artística no busca crear artistas, sino formar personas”* artikuluan, arteak ikasgelan duen garrantzia ludikoa baino gehiago dela adierazten du arteak haurrei “erabakiak hartzen, kritikoak izaten, berezko iritzi bat izaten, sortzen, emozioak kudeatzen, hausnartzen, ekimena izaten, komunikatzen, elkarlanean aritzen...” (Ferragut, 2014) laguntzen diela goraiatuz eta Josep Maria Llompert BHIko Alfons Sard-en hitzak gogoratzen ditu; “Ez da artistak sortzearen inguruko kontua, baizik eta pertsonak eratzearen ingurukoa”. (Sard, A. 2014. Ferragut-en adierazia, 2014).

Honengatik, arte hezkuntzari garrantzia gehiago eman beharko litzaiokeela adierazten du, “honek ez du esan nahi ordu gehiago eskaini behar zaizkionik, nahiz eta ez legokeen gaizki, baizik eta bere garrantzia handitu hezkuntza sisteman”(Bernal, 2015, p. 19).

Dena den, nahiz eta badakigun arte hezkuntzari ez zaiola behar adina garrantzia ematen curriculumean, honetan oinarritu dugu unitate didaktikoa,

Nafarroako Curriculumean; 2014ko irailaren 5eko Nafarroako foru komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumean (LOMCE-n) hain zuzen ere, azken finean hau baita gaur egungo errealitatea eta beraz eskolan topatzen duguna.

Otsailetik Ingalaterran egoteagatik bertan jarri behar izan da praktikan, baina kezka Nafarroako hezkuntza denez, ez da bertako curriculumak ikertu.

4.4.1. Helburu orokorrak

Honako helburu hauek erdiestea ahalbidetuko dieten gaitasunak haurrengan garatzen lagunduko dugu gure jardueren bidez. Lantzen saiatu garen helburuen barnean zehazki zertan zentratu garen hizki etzanez adierazi da.

a) *Bizikidetzaren* balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta *gizarte demokratiko* batek berezko duen aniztasuna *errespetatzea*.

b) *Taldeko nahiz bakarkako lanerako* aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzukizunez aritzekoa, eta *norberarengan konfiantza*, zentzu kritikoa, *ekimena*, jakin-nahia, *interesa* eta *sormena* ikasketaren prozesuan, eta *ekintzaitza*.

c) *Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko* trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.

e) Gaztelania eta, bere kasuan, euskara modu egokian jakin eta *erabiltzea* eta irakurtzeko aztura bereganatzea. *

g) Matematikako oinarrizko gaitasunak garatu eta kalkuluko eragiketa oinarrizkoak, *geometria ezagutzak* eta estimazioak egitea eskatzen duten problemak ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan *aplikatzeko gauza izatea*.

j) Era askotako irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea, sentikortasun estetikoa, sormena eta *artelanez eta arte adierazpenez gozatzeko ahalmena garatzea*, eta ikusizko eta ikus-entzunezko proposamenak gauzatzen hastea.

m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko *harremanetan* ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako *jarrera garatzea*.

(Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculum, 2014. NAO, 174. 2-3 orr.).

* (Ingelesa da kasu honetan haien ama hizkuntza beraz, helburu hau gaztelania eta euskararen inguruan izan beharrean ingelesaren ingurukoa da).

4.4.2. Oinarrizko gaitasunak

Lehen Hezkuntzan, ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak zazpi badira ere, gure unitate didaktikoan ez dira gaitasun hauek guztiak lantzen, baizik eta haietako batzuk modu fokuratuago batean haien beharrak kontuan izanik. Hori jakinki, beraien irakasleek lantzen dituzten gaitasunak hartu dira kontuan.

Hauek dira beraz gure unitate didaktikoan landuko diren gaitasunak haien garrantziaren arabera antolatuta:

7. Kultura kontzientzia eta adierazpena.
1. Hizkuntza komunikazioa.
2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
 - 2.1 Matematika gaitasuna.
5. Gaitasun sozial eta zibikoak.
6. Ekimena eta ekintzailtza.

4.5. Proposamen didaktikoaren helburuak

Proposamen didaktikoaren helburuak hiru arlo desberdinetan dute fokua; Hezkuntza Plastikoa, Hizkuntza eta Komunikazioan eta Matematikaren Geometriaren arloan. Zeharkako helburu gisa, balio sozial eta zibikoak ere landuko dira. Lehenengo biak haien artean bereziki lotuta daude, hori dela eta, curriculumak haiei buruz dioena ikertu da.

4.5.1. Hezkuntza plastikoa curriculumean

LOMCE-n hizkuntza plastikoa “gainerako gizakiekin komunikatzeko” (Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumak, 2014. NAO, 174. 122. orr) tresna moduan aurkezten da.

Arte Hezkuntza bitan banatzen da; alde batetik plastika hezkuntza dago eta bestetik musika hezkuntza. Horietako bakoitza hiru bloketan banatzen da. Hau da Hezkuntza plastikoari dagokiona:

1. Ikus-entzunezkoen hezkuntza
2. Arte hezkuntza
3. Geometriaren atalaren garapen grafikoa.

Curriculumean ez dira Arte Hezkuntzaren helburuak zehazten. Hori dela eta, bigarren mailako curriculumaren ebaluazio irizpideak aztertu dira, 2. eta 3. Blokearen helburuak zeintzuk liratekeen jakiteko:

- Irudiak aztertzen jakitea.
- Material desberdinak berrerabiltzea.
- Formatu eta tamainaren kontzeptuak ezagutzea.
- Lerro mota desberdinak bereiztea.
- Paisaiaren gaia bereiztea, gai historiko bezala ezagutzea.
- Argizarien adierazpen teknika lantzea.
- Objektu errazak irudi planoetan bereiztea eta ondoren erreproduzitzea.
- Puntua lerroa eta plano desberdintzea.

(Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculum, 2014. NAO; 174. 123. orr).

4.5.2. Euskal hizkuntza eta literatura curriculumean

Artearen bidez komunikazioa bermatu nahi denez, esan bezala, LOMCE-n euskal hizkuntzaren eta literaturaren arloko irakaskuntzaren helburuari ere erreparatu zaio: Ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea, haren alderdi guztietan (pragmatikoa, linguistikoa, soziolinguistikoa eta literarioa). Halaber,

tresnak eta ezagupenak eman behar zaizkio haurrari familia, eskola eta gizarte bizitzako edozein komunikazio egoeratan egoki jarduteko.

Euskal hizkuntzaren eta literaturaren arloko irakaskuntzaren helburua, oinarritzako trebetasunak hizkuntzaren erabileran Lehen Hezkuntzan garatzea da: entzutea, ulertzea, hitz egitea, hizketan aritzea eta irakurtzea eta idaztea, modu integratuan.

Komunikazio gaitasuna lantzeko beharrezkoak dira jarrera eta balio batzuk: elkarbizitzako arauak errespetatzea; herritar gisa jardutea; espiritu kritikoa garatzea; giza eskubideak eta aniztasuna errespetatzea; elkarbizitzarako eta gatazkek konpontzeko funtsezko erremintatzat elkarrizketa hartzea eta eremu guztietan gaitasun afektiboak garatzea.

4.5.3. Unitate didaktikoaren helburu didaktikoak

Hau guztia kontuan izanik, unitate didaktiko honek dituen helburu didaktikoak finkatu eta harentzat espresuki sortutako ondorengo taulan antolatu dira:

1. Taula: Helburu Didaktikoak

HELBURUAK	
ADIERAZPEN ARTISTIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Egunerokotasuneko egoerak irudikatzen jakitea. • Abstrakziorako ahalmena, errealak ez diren irudiak errealitatearekin lotzea. • Espazioaren erabilera. • Marrazteko eta margotzeko gai izatea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Emozioak ezagutu eta adieraztea. • Koloreak desberdintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kolore ilunen eta bizien zentzuzko erabilera. • Koordinazioa.
AHOZKOTASUNA ETA HIZKUNTZA EZAGUTZA	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak eskatzeko ahozko hizkuntzaz baliatzea. (ezinezkoa denean piktogramaz baliatzen da). • Objektuak bere izenez deitzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ikaskideekin erlazionatzeko gai izatea.
MATEMATIKAREN OINARRIZKO EZAGUTZAK ETA MARRAZKETA GEOMETRIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Handia eta txikia bereiztea. • Luzea eta motza bereiztea. • Segidak jarraitzeko gai izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko forma geometrikoak ezgutu eta irudikatzen jakitea (borobila, triangelua, karratua).
HARREMANETARAKO GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazkak hitzen bidez adostea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarriketa

	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetuzko tratua. • Beharrak garbi adieraztea. • Bere burua zein gainerako kideena ez eritzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enpatia • Hitzik gabeko komunikazioaren osagaiak erabiltzea.
--	---	---

4.6. Edukiak

Prozedurazko eta Jarrerazko (errespetua, interesa erakustea, kideekin ongi konpontzea eta ez eritzea besteak beste) edukiak landuko dira batez ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi prozedurak garatze aldera, eduki kontzeptualak menperatu behar ez izatea. Hau da, esate baterako, marraztu eta margotzean horretarako erabili dituen elementuak identifikatu eta ezagutu beharko ditu bai eta marrazten duenaren egiturari garrantzia eman ere. Dena den, gehiago interesatzen zaigu, kasu honetan, horiek aplikatzen, erabiltzen eta praktikara eramaten jakitea.

Adin desberdineko haurrak daudenez, ikasturte desberdineko edukiei erreparatu zaie. Dena den, atzerapen kognitiboa dute denek eta haien gaitasuna Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako edukiena da orobat, beraz, berriz ere LOMCE-n oinarritu eta horri erreparatu zaio.

2. Taula: L.H. 2. Mailako Edukiak

	AHOZKO KOMUNIKA-	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko testuak • Ikaslearen jakin- mina eta • <i>Elkarreragina: eskolako</i>
--	-------------------------	--

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA	ZIOA	<p>tipologiaren irudimena <i>bizitzaren</i> arabera suspertzen duten <i>komunikazio</i> esan eta testu labur eta <i>egoera</i> errepikatze errazak entzutea <i>egituratuetan</i> a. eta ulertzea. <i>parte-hartze</i> <i>aktiboa.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko testuak <i>tipologiaren</i> • <i>Eguneroko arabera entzutea gaiei buruzko eta ulertzea. mezuak (hitzezkoak zein bestelakoak) ulertzea eta adieraztea.</i>
	HIZKUNTZA EZAGUTZA	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Hizkuntzaren oinarrizko egituren ezagutza.</i> • Hiztegia ikastea. <i>Kategoria gramatikalen erabilera komunikatzeko</i> Konparazioak. <i>erabilera komunikatzeko</i> Sinonimoak eta - Izen motak (arruntak eta bereziak) antonimoak. - Erakusleak Onomatopeiak. Hitz - Zenbatzaileak polisemikoak. Hitz - Izenordain eratorriak. Hitz elkartuak. - Izenordain pertsonalak Familia lexikoa. Eremu semantikoa. - Adjektibo • Hasmenta eta kalifikatzaileak. Informazioaren eta

		<p>Komunikazioaren Teknologien erabileran, lan errazetan ikasteko tresna gisa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Numeroa (singularra, plurala eta mugagabea). - Aditzen denborak: (orainaldia, lehenaldia eta geroaldia). - Aditz trinkoak eta perifrastikoak. - Perpaus motak: adierazpenekoak (baiezkoak eta ezezkoak, galderazkoak eta harridurazkoak)
ARTE HEZKUNTZA	ADIERAZPEN ARTISTIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Lerroa, forma eta puntua taxutzeko elementu gisa.</i> • <i>Konposizioa: formatu horizontala eta bertikala.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Pinturako gaiak: paisaia.</i> • <i>Teknikak eta materialak: argizariak.</i> • <i>Bolumena: objektuak eraldatzea.</i>
	MARRAZKETA GEOMETRIKO A	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Lerro motak: irekiak, itxiak, zuzenak, kurboak, espiralak eta diagonalak.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Puntua, zuzena eta planoak: hurbilketa intuitiboa.</i> • <i>Irudi planoak identifikatzea eguneroko objektu eta esparruetan triangeluak,</i>

		<ul style="list-style-type: none"> <i>Triangeluak, laukizuzenak eta laukiak egitea eta marraztea esku hutsez.</i> 	<p>laukiak, zirkunferentziak, zirkuluak eta karratuak.</p>
BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOAK	PERTSONAREN NORTASUNA ETA DUINTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> <i>Autokontzeptua. Autopertzepzioa. Auto-irudia. Auto-balorazio positiboa. Nolakotasun pertsonala. Emozioen pertzepzioa. Emozioen ezagutza. Hizkuntza emozionala.</i> <i>Pertsonaren eskubideak eta betebeharrak. Haurraren Eskubideen Aldarrikapena: osasuna, maitasuna eta hezibidea. Mutilen eta nesken</i> 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Autokontrola. Barneko elkarrizketa. Jokabidearen autoerregulazioa. Pentsamolde positiboa.</i> <i>Erantzukizuna. Eskolako eginkizunak arduraz betetzea. Auto-motibazioa. Gogoia.</i>

		eskubideen berdintasuna familiako eta eskolako ardurei dagokienez.
	ULERMENA ETA ERRESPETUA PERTSONEN ARTEKO HARREMANET AN	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Komunikatzeko abileziak.</i> Hitzik gabeko komunikazioaren osagaiak erabiltzea: ikusizko kontaktua, besoen eta eskuen mugimendua. Ahozko komunikazioaren prestaketa: pentsatzea adierazpenik egin baino lehen. • <i>Elkarrizketa.</i> Ideiak garbi adieraztea. Entzuteko jarrera. Besteen ideiak eta haiek adierazteko modua ulertzea. • <i>Bestea errespetatu eta baloratzea.</i> Beste pertsonen ezaugarriak estimatzea. Desberdintasunak onartzea. Bestearen errespetua eta onarpena baloratzea. <ul style="list-style-type: none"> • <i>Enpatia.</i> Bestearen lekuan jartzea. Sinpatia, pertsonen arteko joera afektiboa.
	ELKARBIZITZ	<ul style="list-style-type: none"> • Abilezia sozialak. Bere • <i>Gatazkak</i>

	A BALORE SOZIALAK	<p><i>beharrak garbi adieraztea.</i> <i>konpontzea.</i></p> <p><i>Besteen beharrak</i> Eguneroko</p> <p><i>hautematea.</i> Esfortzuak bizitzaren</p> <p>bateratzea helburu egoera</p> <p>amankomun batekin. atseginak eta</p> <p>Laguntasunaren balioa. desatseginak</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Elkarbizitzaren arauak.</i> ahoz eta Elkarbizitzaren arauak hitzik gabe ezagutu eta errespetatzea adieraztea. lagun taldean eta Ohiko ikastetxean. Pertsonekin gatazkak inplikatzeko egoera irudikatzea bi hurbiletan. Familiaren alderdien ongizatean parte hartzea. ikuspuntutik. <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ingurumena errespetatu eta zaintzea.</i> Material pertsonal guztiak eta klasekoak arduraz erabiltzen laguntzea.
--	----------------------------------	---

4.7. Metodologia

Erabilitako metodologia Arte Hezkuntzan oinarritutako metodologia da, horretaz gainera, metodologia aktiboa, parte-hartzailea eta ludikoa ere izango da, eduki motibatzaileak dituen, ikasleen esperientziak eta bizipenak sustatzen dituen, metodologia kooperatiboa (elkarlana balioetsiz) eta autonomia eta ekimena bultzatzen dituen.

Komunikazioaren arloari dagokionez, Hymes adituaren gomendioetan zentratzen da gaitasun komunikatiboari garrantzia handiagoa emanez (1971a,

pp.3-23). (1971b, pp.51-66). Eta (1972, pp.269-293), Noam Chomsky-k bere *Current issues in linguistic theory* (1964) eta *Aspects of the Theory of Syntax* (1965) lanetan azaltzen zuen ez bezala gaitasun gramatikalari garrantzia kenduz.

4.8. Baliabideak

Materialak jardueren arabera desberdinak izango dira:

1. *Emozioen Adierazpena* jarduerarako, Arbela digitala, paper lodia, pintzelak eta tenperak beharko dira.
2. *Eredua Jarraitzen* jarduerarako, inprimakia, paper lodia, tenperak eta pinotxo papera beharko dira.
3. *Ariketa gidatuak* jarduerarako, paper lodia, argizariak, kretak eta ur-koloreak beharko dira.
4. *Neurriak ezagutzea* jarduerarako, buztina, zurezko makilatxoak eta amantalak erabiliko dira.

4.9. Jardueren sekuentzia

“Estado de la cuestión” atalean hurrekin hezkuntza plastikoa lantzeko proposamen desberdinak daudela ikusi dugu. Proposamen horien artean tendentzia espresionistetan eta modu gidatuago batean lantzearen tendentzietan jarri dugu fokua.

Gogora ekarri nahi dugu espresionismoak hurrari “askatasuna” ematen diola bere “arte” egiterakoan, hurrak sormena berezkoa duela onartzen baitu tendentzia honek eta beraz irakasleak ez du inongo esku-hartzerik hurraren lana ez kutsatzeko. Korronte honekin Rousseau, Schlegel, Paul Klee eta Dalley, bezalako adituak zeuden ados beste zenbaitzuen artean.

Imanol Aguirreren ideietan oinarritu ginen hori kritikoki aztertzeko. Bere iritzi, korronte honek ez du kultura lantzen jada haurtzaroa kulturatzat onartzen baitu.

Gainera, artea ikastearen aukera ukatzen du planteamendu honek soilik haur adituek, jaiotzetik artistak direnak baitira gai honetan aritzeko.

Dena den, Imanol Aguirrek ez du proposatzen kopiaketa-metodoa (eredu bat hartu eta hura kopiatzean oinarritutako irakaskuntza) baizik eta modu gidatu batean haurrari sortzera bultzatzea. Hau da erdiko bide baten aldeko defentsa egiten du proposamen zehatzik egin gabe.

Hau ikusirik, jarduera lantzeko bi modu planteatu dira:

1. Modu espresionista batean landuko dena (Interbentzio ahalik eta gutxienekin haurraren sormena ez “kutsatzeko” planteatu dira).
2. Modu gidatu batean landuko direnak (Haurra gidatuz, tresnak eskainiz eta baliabideak emanez hezkuntza plastikoa lantzea).

Modu gidatua ez denez espresionismoaren aurkakoa, Kopiaketa-metodoa erabiliz burutuko den ariketa bat ere planteatuko da, hobe uler dadin zein den modu gidatua eta erduen kopiaketaren metodoarekin nahas ez dadin.

Jarduerak berez ez dute haien arteko loturarik, ez dira bata bestearen jarraipena. Esperimentazio moduan aurrera eramán diren ariketak dira eta haiekin ikusi nahi zena batez ere hiru modu horien artean zein den egokiena zen bakoitzarekin zer landu daitekeenaz gain.

Osotara lau jarduera planteatu dira. Horietako bi talde osoarentzat proposatu dira (lehenengoa eta azkena), beste bietan aldiz bi ikasle hartuko dira aztergai. Hau honela erabaki da bertako irakaslearen esanetara, proposatu zitzaizkion ariketen artean bi oso interesgarriak iruditu baitzitzaizkion denekin lantzeko.

Beste bi ariketetan aztergai soilik bi haur hartu dira gainerakoek haien errutinen jarraiketan zorrotzago behar zutelako izan eta irakaslea hainbeste saiotako desajusteek ekar zitzaketen ondorioen beldur zelako.

Lau saioko planteamendua da. Saio guztiak 50 minutukoak dira bat izan ezik, bertan parte hartzen zuen haurrak ezinezkoa baitu bai adinagatik eta bai bere autismo egoeragatik arreta denbora luzez mantendu jarduera jakin batean.

4.9.1. Jardueren planteamendua

- Lehenengo saioa -

1. JARDUERA: *Emozioen Adierazpena* (Saio erdia: 25 minutu).
 - a. Landu nahi diren gaitasunak:
 - i. Kultura kontzientzia eta adierazpena
 - ii. Gaitasun sozial eta zibikoak.
 - iii. Ekimena eta ekintzailletza.
 - b. Landu nahi diren helburuak:
 - i. Emozioak ezagutu eta adieraztea
 - ii. Abstrakziorako ahalmena, errealak ez diren irudiak errealitatearekin lotzea.
 - iii. Egunerokotasuneko egoerak irudikatzen jakitea.
 - iv. Bere ikaskideekin erlazionatzeko gai izatea.
 - v. Beharrak garbi adieraztea.
 - c. Landu nahi diren edukiak:
 - i. Eguneroko gaietako buruzko mezuak (hitzezkoak zein bestelakoak) ulertzea eta adieraztea.
 - ii. Konposizioa: formatu horizontala eta bertikala.
 - iii. Lerro motak: irekiak, itxiak, zuzenak, kurboak, espiralak eta diagonalak.
 - iv. Irudi planoak identifikatzea.
 - v. Autokontzeptua.
 - vi. Komunikatzeko abileziak.

- vii. Ingurumena errespetatu eta zaintzea. Material pertsonal guztiak eta klasekoak arduraz erabiltzen laguntzea.
- viii. Abilezia sozialak. Bere beharrak garbi adieraztea. Besteen beharrak hautematea

Lehen ariketa hau modu espresionistan landu nahi den ariketa bat da. Honetan haur guztiek hartuko dute parte. Wasily Kandinsky (1866-1944), Emil Nolde (1867-1956) eta Ernst Ludwig Kirchner (1880-1938) margolari espresionisten margolan batzuk erakutsiko zaizkie arbela digitala erabiliz (1., 2. Eta 3. Irudiak). Irudiak ahoz goran landuko dira koloreak identifikatuz, objektu edo formak antzemanaz, etab.



1. Irudia: Kandinsky



2. Irudia: Emile Nolde



3. Irudia: Kirchner

Gero, irudiak aurretik kendu gabe gaur nola sentitzen diren galdetuko zaie, baina ez zaie pautarik emango ez koloreen inguruan ez ezeren inguruan. (Emozioak ahoz goran esango dira eta baita irudikatu ere, askok ez baitute hitz egiteko gaitasuna baina bai ordea ulertzekoa). Azkenik, Paper lodi bana, pintzelak eta tenperak emango zaizkie margolarien artelanak kendu gabe eta

emozioen inguruko erreferentziak eginez behin eta berriz lantzen ari direna ez ahazteko. (10 minutu).

Nahiz eta haien kabuz margotuko duten, irakaslea haiengan oso zentratuta egongo da, esan bezala emozioak behin eta berriz gogoraraziz eta haien arretak hor jarraitzen duela bermatuz. (15 minutu).

2. JARDUERA: *Eredua jarraitzen* (Saio erdia: 25 minutu).

- a. Landu nahi diren gaitasunak:
 - i. Ekimena eta ekintzailtza.
- b. Landu nahi diren helburuak:
 - i. Egunerokotasuneko egoerak irudikatzen jakitea.
 - ii. Abstrakziorako ahalmena, errealak ez diren irudiak errealitatearekin lotzea.
 - iii. Koloreak desberdintzea.
 - iv. Espazioaren erabilera.
 - v. Marrazteko eta margotzeko gai izatea
 - vi. Koordinazioa.
- c. Landu nahi diren edukiak
 - i. Lerroa, forma eta puntua taxutzeko elementu gisa.
 - ii. Konposizioa: formatu horizontala eta bertikala.
 - iii. Irudi planoak identifikatzea eguneroko objektu eta esparruetan triangeluak, laukiak, zirkunferentziak, zirkuluak eta karratuak.
 - iv. Autokontrola
 - v. Ingurumena errespetatu eta zaintzea. Material pertsonal guztiak eta klasekoak arduraz erabiltzen laguntzea.

Bigarren ariketa hau erabat gidatua izanen da, aurrekoaren antagonista. Eredu bat emango zaie eta hura kopia beharko dute. Honetan, bi haur hartuko dira aztergai. Batak 6 urte ditu eta besteak 11. Biek autismoa dute, baina oso autismo espektra desberdina. A ikaslea (11 urteko neska), ez da hitz egiteko

gai baina ekintzak jarraitu eta burutzeko erraztasun handiagoa du, B ikaslea baino lasaiagoa da. B ikaslea (6 urteko mutila), egonezina da, urduria eta kontzentratzeko zailtasunak ditu.

Izpiliku lorearen marrazki bat emango zaie inprimatuta azter dezaten (*4. Irudia*), eta haiei paper lodi zuri bat lerro berde batekin erdian, zurtoina izango dena. (5 minutu).

Temperak eskainiko zaizkie eta atzamarrak erabiliz zurtoinean gora lorea egitea eskatuko zaie, hatzen aztarnarekin. Pinotxo papera ere emango zaie, horrekin hostoak egiteko eta nahi izanez gero zenbait lore erliebedun ere. (20 minutu).



4. Irudia: Izpiliku lorearen eredua

– *Lehenengo saioaren amaiera* –

3. JARDUERA: *Ariketa gidatuak* (Bi saio; ordu 1 eta 20 minutu).

- a. Landu nahi diren gaitasunak:

-
- i. Kultura kontzientzia eta adierazpena.
 - ii. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
 - 1. Matematika gaitasuna.
 - iii. Ekimena eta ekintzailtza.
- b. Landu nahi diren helburuak:
- i. Egunerokotasuneko egoerak irudikatzen jakitea.
 - ii. Abstrakziorako ahalmena, errealak ez diren irudiak errealitatearekin lotzea.
 - iii. Emozioak ezagutu eta adieraztea.
 - iv. Koloreak desberdintzea.
 - v. Kolore ilunen eta bizien zentzuzko erabilera.
 - vi. Oinarrizko forma geometrikoak ezagutu eta irudikatzen jakitea (biribila, triangelua, karratua).
 - vii. Segidak jarraitzeko gai izatea.
 - viii. Hitzik gabeko komunikazioaren osagaiak erabiltzea.
- c. Landu nahi diren edukiak:
- i. Ingurumena errespetatu eta zaintzea. Material pertsonal guztiak eta klasekoak arduraz erabiltzen laguntzea.
 - ii. Gatazkak konpontzea. Eguneroko bizitzaren egoera atseginak eta desatseginak ahoz eta hitzik gabe adieraztea. Ohiko gatazkak irudikatzea bi alderdien ikuspuntutik.
 - iii. Abilezia sozialak. Bere beharrak garbi adieraztea. Besteen beharrak hautematea.
 - iv. Elkarrizketa. Ideiak garbi adieraztea. Entzuteko jarrera
 - v. Komunikatzeko abileziak. Hitzik gabeko komunikazioaren osagaiak erabiltzea.
 - vi. Autokontzeptua
 - vii. Erantzukizuna. Eskolako eginkizunak arduraz betetzea. Auto-motibazioa. Gogoia.
 - viii. Lerro motak: irekiak, itxiak, zuzenak, kurboak, espiralak eta diagonalak.

- ix. Triangeluak, laukizuzenak eta laukiak egitea eta marraztea esku hutsez.
- x. Teknikak eta materialak: argizariak.

Honetan, aurreko bi haurrekin egingo da lan. Haur hauek bakarka hartuko dira eta zenbait froga egiten saiatuko gara marrazketa erabiliz. Ariketa hauek Imanol Aguirrerren ideietan dute oinarria. Haiek kontuan izanda auto-expresionismoaren eta kopiaketa-metodoaren erdiko bide bateko ariketa posibleak planteatzen saiatu gara.

- A Haurrarekin: (Saio bat: 50 minutu).

Papera emango zaio, zuriz, eta pertsona bat marrazteko eskatuko zaio, argizariak eta ur koloreak emanaz aukeran. Erabat aske bai kolore zein itxurari dagokionez. Aurpegi alaidun pertsona bat egitea espero da. (15 minutu).

Gero, hurrengo orrialdean, aurpegi triste simple bat marraztuko zaio, bere erantzuna eta marrazkia nola osatzen dituen ikusteko. (10 minutu).

Emozioak identifikatzen dituen ala ez jakin nahi da eta haien aurrean duen eragina.

Ondoren, beste orri batean forma geometrikoak; hau da, karratu bat, triangelu bat eta zirkulu bat marraztea eskatuko zaio. Baita irudien segidak ere hala nola ortzadarra egiten hasi eta identifikatzeko eta amaitzeko eskatzea edo lore bat marrazten hastea, amaigabe uztea eta ea amaitu dezakeen eskatzea. (15 minutu).

Azkenik kretekin, hamabi kreta koloreen artetik bost kolore erabiltzeko eskatuko zaio, berak nahi dituenak baina kopurua errespetatu dezala. (10 minutu).

– *Bigarren saioaren amaiera* –

- B Haurrarekin: (Saio erdia 30 minutu).

Txikiagoa denez, eta denbora luzez arreta mantentzea kostatzen zaionez, are gidatuagoa izanen da ariketa. Hau da ere saio hau laburragoa izatearen zergatia.

Lehenik eta behin aurpegi alai bat marraztuko zaio, sinplea, soilik ingerada. Eta ur koloreak zein argizariak erabiliz koloreztatzeke eskatuko zaio. Koloreak bere aukeran izanen dira. (10 minutu).

Gero, beste orri batean aurpegi triste bat azalduko zaio, eta berriz ere, koloreak aukeran izango ditu. Emozioak identifikatzen dituen ala ez jakiten saiatu nahi gara eta haien aurrean duen eragina. (10 minutu).

Azkenik, segidak egiteko gai den ala ez frogatzen saiatzeko, aurreko kasuan bezala, lore bat marraztuko zaio irudia ulertu eta jarraitzeko gai den ala ez ikusteko. (10 minutu).

– *Hirugarren saioaren amaiera* –

4. JARDUERA: *Neurriak ezagutzea* (Saio bat: 50 minutu).

- a. Landu nahi diren gaitasunak:
 - i. Hizkuntza komunikazioa.
 - ii. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak.
 1. Matematika gaitasuna.
 - iii. Gaitasun sozial eta zibikoak.
- b. Landu nahi diren helburuak:
 - i. Koordinazioa.

- ii. Gauzak eskatzeko ahozko hizkuntzaz baliatzea. (ezinezkoa denean piktogramaz baliatzen da).
 - iii. Objektuak bere izenez deitzen ditu.
 - iv. Bere ikaskideekin erlazionatzeko gai izatea.
 - v. Handia eta txikia bereiztea.
 - vi. Luzea eta motza bereiztea.
 - vii. Gatazkak hitzen bidez adostea.
 - viii. Errespetuzko tratua.
 - ix. Beharrak garbi adieraztea.
 - x. Bere burua zein gainerako kideena ez eritzea.
 - xi. Elkarrizketa.
 - xii. Enpatia.
- c. Landu nahi diren edukiak:
- i. Eguneroko gaietako buruzko mezuak (hitzezkoak zein bestelakoak) ulertzea eta adieraztea.
 - ii. Kategoria gramatikalen erabilera komunikatzeko.
 - iii. Bolumena: objektuak eraldatzea.
 - iv. Autokontrola.
 - v. Erantzukizuna.
 - vi. Komunikatzeko abileziak. Ahozko komunikazioaren prestaketa: pentsatzea adierazpenik egin baino lehen.
 - vii. Elkarrizketa. Ideiak garbi adieraztea. Entzuteko jarrera. Besteen ideiak eta haiek adierazteko modua ulertzea.
 - viii. Bestea errespetatu eta baloratzea
 - ix. Enpatia.
 - x. Abilezia sozialak. Bere beharrak garbi adieraztea. Besteen beharrak hautematea.
 - xi. Elkarbizitzaren arauak. Elkarbizitzaren arauak ezagutu eta errespetatzea.
 - xii. Ingurumena errespetatu eta zaintzea. Material pertsonal guztiak eta klasekoak arduraz erabiltzen laguntzea.
 - xiii. Gatazkak konpontzea.

Azken honetan, haur guztiekin egingo da lan. Kontzeptu matematiko oinarrizko batzuk menperatzen laguntzea da azken jarduera honen helburua. Handia, txikia, luzea eta motza kontzeptuak hain zuzen ere.

Horretaz gain, motrizitate fina lantzen saiatu nahi garenez, buztina erabiliko da.

Buztinarekin figurak egin beharko dituzte, bata luzea eta bestea motza egitea eskatuko zaie. Gauza bera handia eta txikiarekin. Eskura izango dituzte zurezko zenbait makilatxo xehetasunak gehitu edo ehundura desberdinak egiteko.

Buztin blokea erdian kokatuko da eta haurrak haren inguruan eseriko dira mahian amantala jantzita dutelarik, ez zikintzeko. Txandak errespetatzen, irakasleari mozteko eskaria azaltzen eta elkarlanean aritzen saiatu beharko dira zurezko makilatxoak erabili nahi izanez gero. Gatazkaren bat sortzen bada, komunikazio bidez konpontzen saiatu beharko dira. Hau da, nahiz eta bakoitzak bere irudiak egingo dituen, elkarlanean aritu beharko dute materialarekiko. (50 minutu).

– *Laugarren saioaren amaiera* –

4.10. Ebaluazioa

Jardueren helburua ez da kalifikazio bat lortzea, ebaluazioa behaketa bidezkoa eta jarraia izan da. Ezagutzak barneratu eta ulertzen eta irudikatzen dituzten ebaluatuko da eta honen jarraipena egitearren portfolio bat bilduko da haien lanekin.

Irakasleak honetarako espresuki sortutako ebaluazio taula betetzea zen hasiera bateko ideia, aurrerapenak non eta zergatik egon diren aztertu ahal izateko. Taulan, ebaluatuko dena ageri da ezkerrean. Hau batetik laura bitarte aztertuko da, non 1 zenbakiak hasierako egoera adierazten duen (hau da, ez da garapenik egon) eta 4ak berriz bikaintasuna. Positiboki ebaluatuko da.

1 = Hasierako egoera ez da aldatu

2 = Hasierako egoera aldatu da laguntza apur batekin

3 = Hasierako egoera aldatu da

4 = Hasierako egoeratik oso urrun dago orain.

Taulan Bitan ebaluatzen dira irizpideak, lehenik eta behin metodo espresionista zuten ariketei begira eta metodo gidatuen ondoren lortutakoari begira gero.

3. Taula: Ebaluazio taula

	Metodo espresionista jarraituz (interbentzio eza)	Metodo gidatuak jarraituz (interbentzioarekin)
Sentimendu eta emozioak ezagutu eta adierazteko gai da.	1/ 2/ 3/ 4	1/ 2/ 3/ 4
Koloreak egoki identifikatzen eta aukeratzen ditu. Zentzu bat ematen die, ez da ausaz.	1/ 2/ 3/ 4	1/ 2/ 3/ 4
Oinarrizko kontzeptu matematikoaren elementuak ezagutu eta	1/ 2/ 3/ 4	1/ 2/ 3/ 4

erabiltzen ditu.		
Arazo bat deritzon egoera baten aurrean badaki nola erantzun, frustrazioari aurre egiten dio.	1/ 2/ 3/ 4	1/ 2/ 3/ 4
Araua jarraitzen ditu, jarrera egokia adierazten du.	1/ 2/ 3/ 4	1/ 2/ 3/ 4

Ordea, aurretik azaldu bezala, bai unitate didaktikoa eta bai unitate didaktikoa planteatzerakoan eta bai ebaluazioa diseinatzerakoan ere, artearen zenbait funtzio orokortu aintzat hartu genituen. Artea beti emozioak adierazteko erabiltzen dela, denak zergati bat duela eta ez dagoela ausazko jokabiderik zalantzan jarri gabe planteatu zen.

Korrante auto-espresionistak hala dioen arren, oso zaila izan da hain denbora laburreko ikerketan plastikaren inguruan haurrek izandako jokabideak eta hartutako erabakiak ausazkoak izan diren ala ez diren hautematea.

Egia da haien margolanetan kolore alaiak erabili dituzte irudi desatseginak zirenean, kolore biziak eta askotarikoak aukeratu zituztela ariketa espresionista burutzeko (nola sentitzen ziren adierazteko ariketa, non gehiengoek pozik zeudela jakinarazi zuten) edo kolore ilunago eta haien artean desberdinekoak (aurkakoak, tonalitate eta intentsitate oso desberdinekoak...) irudia atsegina zenean.

Gizakiok arrazionalizatzeko joera dugun heinean, hau ikusirik esanahi bat ematen saiatu ginen hasieran; “kolore alaiak erabili ditu egoera txarra hobetzeko”, “Pozik dagoenez kolore bizi eta anitzak aukeratu ditu” eta “irudia jada atsegina zenez, ez du koloreetan hainbesteko arreta jarri”. Edonola ere, ezinezkoa litzateke jasotako emaitzengandik ideia horietan oinarritutako ebaluazio taula betetzea hauek auto-espresionismoaren ideia orokortuen eragina diren susmo hutsak baino ez baitira.

Haurren garapena ikusi ahal izateko, unitate didaktiko hau denboran luzatu beharko litzateke eta antzeko ariketak planteatuz joan hezkuntza plastikoa lantzeko aurreko bi moduak (espresionista eta gidatua) behin eta berriz errepikatuz. Hau denboragatik ezinezkoa izan da lan honetan, baina horrela beharko luke izan ikerketa honen jarraipena nahi izango balitz.

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Hemen Trevithick Learnin Academyko (Camborne, Cornwall, Erresuma Batua) gela alternatiboko hurrekin praktikan jarri zen unitate didaktikotik eskuratutako emaitzen analisia eta ondorioa aurkeztuko dira.

Hurrek adin oso desberdinak zituzten (gazteenak 6 eta 11 helduenak) eta autismoa zuten hurrengan zentratu ginen. Osotara bederatzi haur baziren ere, ariketa guztiak ez ziren talde osoarekin aurrera eramanez, bertako irakaslearen esanetara, gehienek haien errutinak zorrozki errespetatu behar baitzituzten.

Lau jarduera dira osotara. Haietako bi (lehenengoa eta azkena) haur guztiarekin landu ziren, tartekoentzat aldiz, haur horietako birekin egin ziren (txikiarekin eta helduenarekin aldea handiagoa izan zedin).

Unitate didaktikoan “Estado de la cuestión” atalean agertzen ziren bi ikuspegiak (espresionismoaren bidetik egiten diren ariketak eta modu gidatu batean egiten diren ariketak) zalantzan jarri nahi izan ziren, hurrekin bi ikuspegi hauek zaintzen zituzten ariketak planteatuz. Horretaz gainera, korrante auto-espresionistaren ideiak berezkoz hartu ziren hasieratik, non artea emozioak adierazteko tresna den, eta beraz, haur hauekin artea soilik horretarako erabili daitekeen ala beste zenbait gauza lantzeko ere baliagarria den aztertu nahi izan zen (matematikaren geometria atala hain zuzen ere).

Lortu diren emaitza batzuk espero genituenak ziren, beste batzuk ez ordea. Haietako asko ezin izan genituen nahi bezala aztertu, artearen inguruan zabaldua dauden zenbait ideia eta mito (auto-espresionismoaren ideia: arteak emozioak adierazten ditu eta bertan parte hartzen duten elementu guztiek esanahi bat dute artistarentzat) egiazta hartu baikenituen.

Dena den, nahiz eta lortutako emaitzak ez diren nahi genukeen bezain zehatzak, jasotako irudiak aztertzerakoan atera ditzakegun ondorioek haur hauek hobe ulertzen laguntzen digute, baita arteak haiengan duen eragina hobe ezagutzen ere.

Emaitzak jardueraren arabera analizatu dira, unitate didaktikoan zuten ordena jarraitzen. Gogora ekarri nahi da beraz, auto-espresionismoan oinarritutako ariketa eta matematika lantzea helburu zuen ariketa taldean burutu zirela eta gidatutako ariketak zein ereduaren kopiaketan oinarritutakoak soilik gelako bi haurrekin; A haurra, (11 urteko neska) eta B haurra (6 urteko mutila).

5.1. “Emozioen adierazpena” jarduera

5.1.1. Auto-espresionismoaren proposamenak jarraitzen dituen ariketaren emaitzak.



5. Irudia: Emozioen adierazpena ariketaren emaitzetako bat

Ariketa hauek burutu bitartean, haurrak lasai egon ziren, gustura eta arreta bere horretan mantendu zuten. Gehien kostatu zena azalpenean adi egotea izan zen, azken finean entzuketa aktiboa egitea zaila egiten baitzitzaaien orokorrean.

Margotzen egon bitartean arreta hain zorrozki mantendu behar ez izateak, koloreak aukeratzeko orduan zuten askatasunak eta jarraibideetan pentsatu behar ez izateak ariketa lasaigarri batean bilakatu zen jarduera, eta erlaxazio ariketek duten efektua izan zuen hurrengan, honekin hasi aurretik haietako zenbait urduri edo triste zeuden eta nabaria izan zen ariketaren ondoren pasa egin zitzaieela eta lasai eta ongi zeudela. Haien errutinari zegozkien ondorengo ariketak aurretik egin zituztenak baino lasaiago eta zintzoago egin zituzten.

Ariketan kolore biziak erabili zituzten, haien artean nahasiz eta paperean zehar zabalduz inolako ordenarik jarraitu gabe. Batzuek ur gehiago erabili zuten eta beste batzuek ordea bat ere. Pintzelaz margotu zuten nahiz eta haietako zenbaitek haien eskuak eta aurpegia ere zikindu zituzten.

5.1.2. Auto-espresionismoaren proposamenak jarraitzen dituen ariketaren ondorioak

Ariketa honekin emozioak adierazteko gai ziren ala ez ikusi nahi zen, koloreak zentzu batekin aukeratzea haien eguneroko egoera bat adierazteko, ordea, konturatu ginen nahiz eta ariketa ulertu eta azaldutakoa bete zuten, zaila zela koloreen hautaketa ausaz egina zen ala ez definitzea. Gauza bera gertatu zen emozioen adierazpenarekin.

Kolore alaiak erabili zituztela ikusitakoan, pozik zeudela pentsatu genuen hasiera batean, kolore alaiak beti ongizatearekin lotzen baitira nahi gabe. Ordea, haratago begiratu gero, ausaz ere izan zitekeela planteatzea ez da arraroa, azken finean agian ez dutelako kolorea emozioekin lotzen. Beraz susmo horiek zalantzan jarri behar izan genituen.

Gainera, aipatzekoa da ere haur guztiek antzeko lanak egin zituztela eta honek aurreko ideiak zalantzan jartzearen egoera finkatzen du, auto-espresionismoan zentratzen den ariketa batek ez bailuke emaitza bera edo antzekoa izan behar ikasle guztietan.

5.2. “Eredua jarraitzen” jarduera

Jarduera honetan bi haurrekin egin zen lan; A haurrarekin, (11 urteko neska) eta B haurrarekin (6 urteko mutila). Eredua ematen zitzaienez (*4. Irudia*), irudia ahalik eta era egiazkoenean kopia egin zezaten nahi zen. Hori dela eta, koloreak ere mugatuak zituzten, eta hatzekin egin behar zutela ere aurretik adierazi zitzaien.

Helburuen artean, errealitatea irudikatzeko zein abstrakzioarako ahalmena, koloreak desberdintzea, espazioaren erabilera egoki bat egiten jakitea, koordinazioa eta marrazteko gaitasuna izatea zeuden. Askatasun gutxi zeukatenez, ez zuten aurreko ariketa bezain gustura egin, errazago nekatzen ziren eta hain mugatuta egoteak zenbaitetan frustrazioa eragiten zien.

5.2.1. A haurraren lanaren emaitzak



6. Irudia: A haurraren marrazkia

A haurrak oso adi begiratu zion ereduari, eta berehala atzamarrak margoan bustitzen hasi zen eta hauek eredu bezala jartzen zurtoinean zehar.

Argibideak ulertu eta jarraitzeko erraztasun handia erakutsi zuen, baita ikusten zuen irudia ulertu eta antzeko bat egiteko gaitasuna ere. Irudia ez zen argazki bat, eta hala ere hasieratik ulertu zuen zer zen.

Puntuak ongi kokatuta daude zurtoinaren ondoan gora eginez, ez ditu orrian zehar sakabanatu ausaz. Gainera, gehiengo puntuak lerro horizontal imajinario bati jarraituz egin zituen (nahiz eta lerroa erabat zuzena ez den edo haren norabidea bikaintasunez errespetatzeko zailtasunak zituen).

5.2.2. A haurraren lanaren ondorioak


Ariketa oso gustukoa zuen bustitzea eta janariarekin jolastea bezala zelako margoz blaitzearen sentrazioa eta berarentzat hori oso lasaigarria da.

Irudia hasieratik identifikatu eta ulertu zuen, honek, abstrakziorako ahalmena duenaren seinale dela uste da, ez baitu argazki erreal baten beharra lore bat dela esateko.

Puntuak kokapenek espazioaren erabilera egoki bat egin duenaren seinale direla esan genezake, ulertu duela non egon behar duten eta zergatik jada irudia zer zen identifikatzeko gai izan zelako. Puntuak lerro horizontal batzuk jarraituz egiten saiatu izanak koordinazioa duenaren seinale izan liteke.

Lortutako emaitza behatzen badugu, marrazteko gai dela ere ikus daiteke, irudia ulergarria baita. Edonola ere, ezinezkoa da jakitea egunerokotasuneko egoerak irudikatzeko gai den ala ez, ez baitakigu ziurtasunez egoera honetaz gain beste zenbait irudikatzeko ahalmena duen. Agian loreak oso gustukoak izateagatik ulertu eta egiten ditu horren erraz eta argi.

5.2.3. B haurraren lanaren emaitzak



7. Irudia: B haurraren marrazkia

Argibideak ulertu eta jarraitzeko zailtasunak erakutsi zituen, baita ikusten zuen irudia ulertu eta antzeko bat egiteko ere. Lehen esan bezala, irudia ez zen argazki bat, eta agian honek arazo bat suposatu zuen bere ulermenean. Kontuan izatekoa da ere bere adina askoz ere txikiagoa dela, sei urte dituela eta beraz bere marrazteko gaitasuna ez dago oso garatua oraindik.

Ariketa irakasleak hasi zuen eta bere atzamarrak busti zizkion berak jarrai zezan. Ordea antsietate handiko haurra da eta pazientziaz puntuz puntu hasi bazen ere, berehala urduritu eta dena orbain handi bat bilakatuz amaitu zuen.

Koloreak aukeratzeko laguntza behar izan zuen, horia eta gorria bezalako koloreak erabili nahi zituen, baina ariketak oinarria kopiaketan zuenez, beste margo potoak kendu behar izan zitzaizkion eredia ahalik eta hoberen jarrai zezan.

Zurtoinean gora puntuka egiteko zailtasunak izan zituela ere ikus daiteke marrazkian, baina hala ere zurtoinaren beheko partea ongi errespetatu du. Ez du lorearen petaloa behar lukeenik margotu hor.

5.2.4. B haurraren lanaren ondorioak

Hain mugatuta egoteak apur bat abailtzen ziola esan liteke, etengabe aulkitik altxatzen zelako, lurrera botatzen zelako eta beste gauza batzuk egitea planteatzen egon zelako ariketa osoan zehar. Agian hau da koloreak aukeratzeko gai ez izatearen arrazoia, berez haien izenez deitzen baitzekien.

Esan bezala, adinagatik izan litzateke espazioa erabat ongi kontrolatu eta marrazteko gaitasuna A haurrarena bezain fina ez izatearen kontua, baina hostoak non zihoazen bai eta petaloek non egon behar zuten identifikatu izanak eredia zer zen ulertu zuela esan genezake baita ondorioz abstrakziorako gaitasuna duela ere.

5.3. Auto-espresionismoaren eta ereduen jarraipenaren arteko hirugarren bide bat bilatus sortutako “ariketa gidatuak”

Ariketa gidatuekin eguneroko egoerak irudikatzen jakitea, abstrakziorako ahalmena lantzea, emozioak ezagutu eta lantzea, koloreak desberdintzen jakitea eta haien zentzuzko erabilera egitea, oinarritzko forma geometrikoak ezagutu eta irudikatzen jakitea (biribila, triangelua, karratua), segidak jarraitzeko gai izatea eta hitzik gabeko komunikazioaren osagaiak erabiltzea zen helburua.

Honetarako planteatu ziren ariketak aurreko ariketako bi haurrekin eraman ziren aurrera modu indibidualizatu batean. Ariketek Imano Aguirreren ideietan dute oinarria, bere proposamenak kontuan izanda haurra bere horretan libre ez uztea erabaki eta ariketa gidatuagoak planteatu dira.

5.3.1. A haurraren lanaren emaitzak

5.3.1.1. Lehenengo ariketa




7. Irudia: A haurraren 1. Ariketa gidatua

Aurpegi bat marrazteko eskatu zitzaion eta espero zena aurpegi alai bat marraztea zen, arruntagoa baita edozer pozik irudikatzea triste baino lehen. Susmoak betez, aurpegi alai bat marraztu zuen, bizia eta kolore aniztuna.

Koloreetako gehiena era alternatiboan aukeratu zituen. Dena den, haietako zenbait kontzientziaz hautatuak direla ikus daiteke, hala nola, aurpegia arrosa kolorez egin zuen, nolabait haragi kolorearekiko zilegi zena, begiak marroiak egin zituen eta begi ninia ipini zien beltza erabiliz. Ahoa eta sudurra egiteko gorria erabili zuen eta azkenik, masailak, arrosa argiz margotu zituen ingerada beltz batean bilduz. Nahiz eta berez helburua ez zen kolore errealistak erabiltzea eta askatasun osoa eman zitzaien hauen aukeraketan, berak errealitatea jarraitzeko joera agertu zuen.

Gorputz osoa egin zion arropa eta guzti eginez, nahiz eta soilik aurpegia marrazteko eskatu zitzaien. Xehetasun guztiak gehitu nahi izan zituen eta ez zion inori orria pasatzen uzten dena egin zuela iruditu zitzaien arte.

5.3.1.2. *Bigarren ariketa*



8. Irudia: A haurren 2. Ariketa gidatua

Orriaren beste aldean, aurpegi triste bat marraztu genion eta orria pasa eta hura ikusi zuenean, ez zitzaien batere gustatu, gaizki erreakzionatu zuen

tristuraren emozioarekiko. Oihuka hasi zen zenbait zarata eginez eta orria kentzen saiatuz, argizariak botatzen saiatuz..

Helburua honekiko konponbide bat topatzea zenez, orria zegoen tokian mantendu zen eta gustatzen ez zitzaiona konpontzeko eskatu zitzaion. Gustatzen ez zitzaionez eta orria pasatu ahal izateko modu bakarra zela ulertu zuenez, berehala hori konpontzen saiatu zen eta bururatu zitzaiona margo berdearekin ahoa aho-zabal batean bilakatzea izan zen, mingaina jarri eta orria pasatzen hasi zen berriz. Hau bi minutuko kontua izan zenez, apur bat gehiago orrian geratu nahi izan genuen, baina gehiegi frustratzen hasi zen orri osoan zehar puntu berdeak jarritz, beraz orria pasatzen utzi zitzaion hurrengo ariketarantz.

5.3.1.3. Hirugarren ariketa



9. Irudia: A haurren 3. Ariketa gidatua

Ariketa honetan oso adi egon zen, eta nahiz eta askotan zereginaz ahaztu eta libreki margotzen hasteko joera zuen, arreta berreskuratzea ez zen zaila. Irudi geometriko batzuk egitea eskatu zitzaion, triangela eta laukia hain zuzen ere.

Laukia izan zen egin zuen lehena eta marraztu ondoren barnealdea berde ilun batez bete zuen.

Gero triangelua egin zuen. Apur bat gehiago kostatu zitzaion, hirugarren aldea egin behar zuenean apur bat blokeatu zen. Hala ere, hiru alde izan behar zituela gogorarazi zitzaionean beste bi aldeak elkartu eta triangelu bat sortu zuen.

“Triangle” (triangelu) eta “Rectangle” (laukizuzen) hitzak errepika zitzan saiatu zen, ahozotasuna eta komunikazioa lantzeko. Ez da gai hitz egiteko, baina errepikatzen saiatu zen soinu batzuk eginez.

Segidak jarraitzeko gai ote zen ala ez ikusteko, lore bat marraztu zitzaion, amaitu-gabea, eta berak azken petaloak jarri zizkion, baita hostoa ere.

Ortzadar batekin ere saiatu zen segida lantzen: koloreak abesten zitzaizkiolarik (first orange, second yellow, then pink, then green...) irakaslea orden hori jarraitzen ortzadarra margotzen hasi zen. Bat-batean gelditu eta jarraitzeko eskatu zitzaion. Ustea hasita zegoen ortzadarra amaituko zuela zen, baina ezustekoa izan zen ortzadar berri bat hasi zuela abestutako segida osoa buruz berreginez.

5.3.1.4. Laugarren ariketa



10. Irudia: A haurren 4. Ariketa gidatua

Azkeneko ariketan kantitateak kontuan izan zitzaizkien saiatu ginen. Kolore hautaketari ez zitzaion hainbeste garrantzia eman, baina kolore kopurua pautatu zitzaizkion. Bost kolore har zitzaile nahi zen, era konsziente batean kopuru jakin bat hartzea.

Ariketa hau lasaiagoa zen, libreagoa, eta gainera bere margo gustukoekin burutzekoa zen, beraz hobeto jarraitu zituen arauak. Laguntza apur bat behar izan zuen zenbaki kopuru jakin bat aukeratu behar izan zuenean, zenbaki eta objektu kopuruaren arteko erlazioa egitea kostatu egiten zitzaion.

Hasieran zazpi kolore hartu zituen (urdina, berdea, laranja, gorria, beltza, marroia eta horia) eta hiru aldiz zituen kretak zenbatu behar izan genituen berarekin batera, ozen, bi soberan zituela konturatu zen arte. Urdina eta horia deuseztatu zituen orduan. Behin kopurua ongi zegoela, nahi zuena egiten utzi zitzaion, sari moduan eta nolabait ere lasaitzeko.

5.3.2. A haurraren lanaren ondorioak

5.3.2.1. Lehenengo ariketa

Aurpegi alaiarra marraztu izana ez dugu uste ausaz den zerbaitengatik dela, hori baitzen ere gure susmoa eta ikasgelako irakasleek espero zutena ere. Ezin pentsa dezakegu hau pozik zegoelako egin zuenik, aurreko ideia auto-espresionista zabalduetan eroriko ginatkeelako. Imanol Aguirreren hitzak buruan izanik, haurrak hasieratik estimuluak jasotzen ditu etengabe, ezinezkoa da bere sormena ez “kutsatzea”. Panpinek, jostailuek, ipuinek edo marrazki bizidunek dituzten irudiak berehala ezagutzen ditu, azken finean kultura baten barnean dago eta.

Horri erreparatuz gero, konturatuko gara haurrentzako egiten diren material gehienek aurpegi alaiak dituzten irudiak agertzen dituztela, eta baliteke horregatik izatea normalena aurpegi alaiarra marraztea edo hori espero izatea batez ere haurrengandik.

Esan bezala, helburua ez zen kolore errealistak erabiltzea, baina bai haiek desberdintzen jakitea eta zentzuz aukeratzea ere, hori dela eta, zenbaitetan errealtatea betetzen saiatu izanak koloreak ezagutzen eta desberdintzen dituenaren adierazle dela uste dugu.

Begietan begi ninia, masailak, ilea edo atzamarrak bezalako xehetasunak egin izanak eguneroko irudiak irudikatzeko gaitasuna erakusten duela esan genezake. Gainera, gorputz osoa egin izana nahiz eta soilik aurpegi bat egiteko eskatu zitzaion, ez dugu uste akatsa izan zenik, bera giza irudiaz kontziente delako baizik eta hau buru bat baino gehiago dela ulertzen duelako. Ondorioz, gure ustez irudi honek giza irudia ulertzeko eta irudikatzeko gai dela adierazten du.

Edonola ere, nahiz eta giza irudiaren atal guztiak identifikatu eta marrazten badakien, errealtatea hain zehazki errrepresentatu nahi izateak irudiaren

errealismoari oso lotuta dagoela adieraz lezakeela pentsatzen dugu, baina baliteke besterik gabe detailezale izatea eta gustuko ariketak amaitzea gorroto izateagatik bertan jardutea amaiera arte.

Lehenengo ariketarekin gertatu bezala, ezin daiteke ondorioztatu emozioak kontrolatu eta irudikatzeke gai den ala ez koloreen hautaketa eta irudiagatik, azken finean besterik gabe gustuko dituen koloreak hartu zitzakeen.

5.3.2.2. *Bigarren ariketa*

Erreakzio horiek, ohikua hastea, gauzak bota nahi izatea etab. bezalako erantzunak frustrazioaren seinale dira haur honetan eta uste dugu horrela jarri izana emozio hau ez duelako ongi kudeatzen eta horregatik frustratu zela izan daitekeela.

Konpontzen saiatu zenean otu zitzaion aho tristea aho zabal batean egiteko ideia hori aurpegiaren tristura kentzeko saiakera bat izan litekeela uste dugu, ordea, berde kolorearen hautaketak ez duela berezko esanahi bat, baizik eta egoeraren ongi-ezagatik inpultsoz aukeratu zuen edozein kolorea dela.

Gustatu baino motzago izan zen ariketa hau, esan bezala egoera emozional txar batean egoten hasi zen eta bertan behera utzi behar izan genuelako.

5.3.2.3. *Hirugarren ariketa*

Irudi geometrikoak egin zituen erritmoari behatuz, laukizuzena triangelua baino ezagunagoa duela esan genezake. Forma sinpleagoa iruditzen zaiolako agian bere inguruan forma horretako objektu gehiago daudelako. Edonola ere, triangelua egiteko gai izan zen nahiz eta azalpenak behar izan zituen. Honek ulermena baduenaren adierazgarri izan zela uste dugu. Esaldi sinpleetan azaldu zitzaion, eta kontuan izanik bi hitzeko jarraibideak baino ez dituela ulertzen, aurrera pauso bat izan liteke.

Hitzak errepikatzen saiatu izanak ahoz komunikatzeko gai ez den arren saiatzen dela eta horretarako instintua duenaren adierazletzat ulertu genuen, saiakera horien manifestazioek komunikazioan aurrerapausoak izan litezke, azken finean horrela hasten baikara gizakiok hizketan.

Segidei dagokienez, oso erraztasun handia erakutsi zuen, lorearen irudia erraz amaitu zuen eta ortzadarrarena ulertzeko denbora apur bat gehiago behar izan bazuen ere, azaldu bezala zerotik hasi zen. Hemen segidak egiteko gai zela ikusteaz gain, oroimen musikal eta espazial ona duela ikusi genuen. Izan liteke irakaslearen irudia kopiatu zuela pentsatzea, ordea, azkarregi egin zuen eta kopiatzen balego denbora gehiago behar izango lukeen koloreak hautatzeko etab. Gainera, koloreen ordenan apur bat nahastu zen eta honegatik ere kopiatzen ez zegoela esango genuke.

5.3.2.4. *Laugarren ariketa*

Ariketan behin eta berriz kretak zenbatzen aritu behar izanak zenbatzen ez zekienaren adierazgarritzat ulertu genuen. Agian bosta zenbaki handiegia zen berarentzat, baina hatzekin edo beste edozein keinurekin zenbatzen bitartean zeozer ez egin izanak zer egiten ari ginen oso ongi ulertzen ez zuelako zela uste dugu.

Agian bosteraino iristen ginela beti ikusi zuelako ulertu zuen bi soberan zeudela, edo agian kasualitatea izan zen. Dena dela, horia eta urdina deuseztatu izana erabat ausazko jokabidea izan zela uste dugu eta ez aukeraketa mediatu eta konplexua.

Kretek margotzea zuela teknikarik gustukoena aukeran eman zitzaizkion tekniken artean gehien zikintzen zuena zelako dela uste dugu, hautsa ateratzen dutelako eta erraz zabaltzen delako eskuekin.

5.3.3. B haurraren lanaren emaitzak

5.3.3.1. Lehenengo ariketa



11. Irudia: B haurraren 1. Ariketa gidatua

Lehen aipatu bezala, B haurra txikiagoa izanik eta egonezin maila altuago bat izateagatik laguntza gehiago behar zuen arreta mantentzeko.

Ariketa hau bazkalordutik oso hurbil egin zen berarekin eta bera jada gose zen. Hasieran ez zuen ariketak egitera joan nahi, jarrera txarra zeukan eta umore txarrez eseri zen margoen aurrean. Aurpegi alaia ikusi zuenean, bera ere irribarrez hasi zen eta argizarizko hori kolorea hartu zuen “happy face, very happy happy face” (aurpegi alaia, aurpegi oso-oso alaia) errepikatzen zuen bitartean pozik.

Horiarekin begiak margotu zizkion eta burua irudikatzen zuen ingerada beltzaren ingurua ere. Gero ur koloreak hartu zituen eta kolore guztiak erabiltzen hasi zen, axolarik gabe. Denak batera eta bata bestearen gainean. Nahastu zitzaizkiola ikusi zuenean orria pasatzeko garaia zela adierazi zuen hitzez.

5.3.3.2. Bigarren ariketa



12. Irudia: B haurren 2. Ariketa gidatua

Hurrengo orrian A haurrarekin egin bezala arpegi triste bat marraztu zen. Orria pasatzean eta aurpegi tristea ikustean *zergatik?* galdezka hasi zen. Hori eta gero frustratzen hasi zen nahiz eta aurpegi hori hobetzea proposatzen zitzaion behin eta berriz margoak erabiliz. “I don’t like it, *B haurrak* doesn’t like it, I don’t like it, no, no no...” (Ez zait gustatzen, *B haurrari* ez zaio gustatzen, ez, ez, ez...) errepikatzen zuen oihuka. Lasaitzeko, sorbaldak ukituz irakasleak pintzela eman zion begi kontaktua mantenduz, eta margoetan bustitzera bultzatu zion.

Bere aukera kolore alaiak izan ziren.

Azkenik, A haurrarekin egin bezala segida bat bete zezakeen ala ez ikusi nahi izan zen. Orria pasatzea zen ideia, baina berak ez zuen nahi izan eta tokia zegoenez, orri berberean egitea erabaki zen. Lore erdia marraztu zitzaion eta berari amaitzeko eskatu zitzaion. Bazekien zer falta zitzaion baina ez zuen asmatu pintzela non kokatzearekin eta petaloak lekuz kanpo egin zituen.

Hostoa jarriko zion ala ez galdetu zitzaion eta baietz esan baina petaloen antzera lekuz kanpo egin zuen.

5.3.4. B haurraren lanaren ondorioak

5.3.4.1. Lehenengo ariketa

Ariketa egin bitartean ikusi genuenetik ondoriozta dezakeguna haurrak irribarre soziala daukala da. Haur hauengan ez da oso arrunta jokabide hori izatea eta horren agerpenak harremanatzeko uste baino erraztasun gehiago dituenaren adierazletzat ulertu genuen.

Hasieran, aurpegia alai zegoelako ez ziela arretarik jarri koloreei ulertu genuen, baina esan bezala, oso antsiosoa da izatez, eta horregatik ere izan liteke kolore guztiak hartze hori.

Hala ere, nahiz eta koloreen hautaketaren zergatia ezin daitekeen zehatz mehatz jakin, teknikarena bai ordea. Hasieran argizariekin hasi zen hurbilago jarri genizkiolako, baina ur koloreak begiztatu zituenean ez zuen bitan pentsatu eta haiekin margotzen hasi zen. Hau, urarekin duen obsesioagatik dela esango genuke, etengabe ura dagoen tokietara joan nahi du, etengabe bere burua busti nahi du eta beraz ur koloreak nahiago izatearen arrazoia hori izan litzateke.

Komunikatzeko gai den arren, garrantzitsua da etengabe ahozkotasuna lantzen egotea, beraz guztia ahoz adierazi izanak garapen komunikatiborako oso lagungarria izan zitzaiola esango genuke bai eta gizartean txertatzeko erraztasuna eskuratzeko ere.

5.3.4.2. Bigarren ariketa

Emozioa ez zuenez gustuko, bere konponbidea kolore alaietara jotzea izan zelaren susmoa dugu, nolabait aurrekoan koloreak besterik gabe hartzen hasi zela baina bigarren aukera honetan nahigabe irudia alaitzen saiatu zela. Dena

den, susmo hutsak baino ez dira, azken finean ausaz ere egin lezakeen aukeraketa baita.

Argi dagoena ahoari buelta ematen saiatu zela da, mugimendu oso argiak izan baitziren kolorea hartu eta ahoaren tokian lerro kurbatu bat egitearenak.

Segidei dagokienez, uste dugu ulertu zuen arren eta irudia amaitzen saiatu zen arren, bere adinagatik espazioaren erabileran ez zuela asmatu.

5.4. “Neurriak ezagutzea” matematika arte plastikoen bidez landu daitekeen ala ez ikusteko bideratutako jarduera



13. Irudia: Neurriak ezagutzea ariketa

Buztina erabiliz (ariketarekin bide batez motrizitate fina lantzeko), matematikaren handia, txikia, luzea eta motza kontzeptuak lantzea zen helburu nagusia. Horretaz gain, koordinazioa, ahozko hizkuntzaren erabilera, objektuak bere izenez deitzea, ikaskideekin harremantzeko gai izatea errespetuzko tratu batez, beharrak adieraztea, elkarrizketa eta enpatia landu nahi izan ziren.

5.4.1. "Neurriak ezagutzea" jardueraren emaitzak

Ariketa honetan oso interesgarria izan zen ikustea nola hasieran zenbait haurrek ez zuten buztina ukitu nahi eskuak ez zikintzeagatik, baina ariketak aurrera egin ahala, beraien ikaskideak ikusirik zenbaitzuk animatu ziren parte hartu eta buztina lantzera.

Aipagarria da ere gelako zortzi urteko haur baten kasua: Berak ez zuen buztina ukitu nahi, baina kideetako batek laguntza eskatu zion bere buztin zatia eusteko eta nazkak alde batera utzi zituen une labur batez izan bazen ere.

Neurrien kontzeptua lehenik eta behin ahoz azaldu zitzairen eta buztinarekin egiteko eskatu zitzairen. Ulertzen kostatu zitzairen gehiengoari eta figurak egiten hasi ziren gaia kontuan izan gabe.

Ondoren buztin zatiekin erakutsi zitzaizkien kontzeptuak irudikatuz eta orduan bai gai izan zirela buztina erabiltzen neurriak adierazteko.

Ariketaren bitartean, buztina leuntzeko edo apaintzeko zeuden makiletako bat kendu zion ikasle batek beste bati, eta honek irakaslearengana jo zuen gertatutakoa adieraziz. Honetaz gainera, ez zen beste inolako gatazkarik sortu, bakoitzak berea egin zuen oso lasai.

5.4.2. Neurriak ezagutzea jardueraren ondorioak

Ariketa honetan matematikak manipulatioa behar duela izan ikusi zen, ikusteko eta erabiltzeko gai izan zirenean ulertu baitzituzten kontzeptuak. Era berean, arteak matematika manipulatio bilakatzeko duen gaitasuna ikusi izan genuen, geometriaren atalean bai gutxienez. Kasu honetan, buztinaren bidez neurrien oinarrizko kontzeptua ulertu zuten denek eta ariketa gustuko baten bidez gainera.

Bestalde, nahiz eta harremantzeko zailtasunak dituzten haurrak diren, lagunak izatearen sentimendua garatzeko gai direla ikusi genuela esan genezake

aipatutako haurrak bere ikaskidea laguntzeko bere nazkak alde batera utzi zituenean.

Gatazkak haien kabuz konpontzeko zailtasunak dituztela iruditu zitzaigun, haur batek makila kendu ziotela adierazi nahi izatean irakaslearengana jo zuelako bere ikaskidearekin hitz egin ordez. Ordea, inizatiba egokia dela uste dugu ez konformatu izana.

ONDORIOAK

Artearen bidezko ariketak orokorrean Trevithick Learning Academyko Dragons gelako haur guztien gustokoak izan ziren eta honek haien arreta eta motibazioa zekartzan berekin.

Haur hauek, gehienek, oso erraz frustratzeko joera dute, eta kontzeptu desberdinak modu teoriko batean bereganatzea oso zaila egiten zaie bai horregatik eta baita arreta mantentzeko zailtasunagatik.

Hori dela eta, artearen ikuspegitik fokatuz gero, errazagoa dirudi haien motibazioa piztea eta ondorioz haien arreta mantentzea. Are gehiago, artearen bidez egin izan diren jardueretan, nahiz eta zenbaitetan urduritu izan diren, gehienetan lasaitu eta disfrutatu egiten zuten jarrera sozial egokiago bat izanez hurrengo ekintzetan.

Horren ondorioz, arte hezkuntza haur hauentzat oso garrantzitsua dela ondoriozta daiteke eta Heather Stack (HM Stack Consulting Ltd – Perception & Innovation in Education-eko zuzendariak) “SEND Magazine” aldizkari digitalean igotako *Arts and Creativity* artikuluan adierazi bezala, artearen irakaskuntzari garrantzia handia eman behar zaio, ez da inola ere “ eskolako pasabideak apaintzeko” (2015, p.1) izan behar eta are gutxiago soilik ikasle onenen esku egon behar.

Bere hitzetan, “Hezkuntza Laguntza Berriazko Premiak dituzten ikasle askok ikasturtea pasa ahala geroz eta txikiagoa eta mugatuagoa bilakatzen den curriculum dute. Non dago orduan ezkutuko abileziak arakatzeko, sormena garatzeko, garapena lortzeko, poztasuna iristeko eta jakintza berriak eskuratzeko aukera?” (Íbidem, p.4).

Hezkuntza artistikoa zein ikuspegitik irakasteari dagokionez, uste dugu bai korrante expresionista zein gidatuaz baliatu beharra dagoela. Expresionismoak dakartzan onurak probestea oso ongi datorkie haur hauei; hala nola libreki

espresatzeko eta argibiderik gabeko ariketak izateko. Baina ariketa gidatuen beharra dago baita ere gauza berriak lantzeko, landutakoan sakontzeko, kulturak duen eragina ulertu eta baliatzeko edo helmuga finko batera heltzeko, baina batez ere haurra bere “konfort zonaldean” gera ez dadin betiko gauzak egiten.

Ahokotasuna ez zuten hurrek artearen bidez komunikatu ahal izan ziren irakasleari zer gustoko zuen eta zer ez jakinaraziz edota oinarrizko irudien ezagutzak zituztela adieraziz. Mark Rothko (2018) margolariak esan bezala, hurrekin artea lantzerakoan irakatsi beharreko lehena zera da; artea “adierazteko hizkuntza unibertsal bat da, hitz egitea edo abestea bezain esanguratsua”.

Ariketa gidatuetan lortutako emaitzak ikusirik (komunikaziorako joera adierazten zutela, arazoak konpontzeko nahia pizten zitzaiela, errealitatea ezagutu eta irudikatze gai zirela, argibideak ulertzeko gai zirela, etab.) ariketa autoespresionistarekin baino gehiago ikasi zutela esan genezake beraz, zituzten ezagutzak garatu, kontzeptu berri gehiago landu eta barneratu eta teknika plastiko gehiago probestu zituztelako.

Gainera, ariketa gidatuetan helburua argiago zegoen. Ziurtasun eta zehaztasun handiago batekin jakin zitekeen haurrak zer ari zuen egiten eta egotekotan, baita zein zen aukeratutako koloreen zergatia eta erabilitako elementuen esanahia ere. Ausazko ariketa hutsak ez izateak jarraipena egiteko erraztasuna eman zuen.

Edonola ere, oso denbora gutxi izan genuen jarduerak planteatu eta bideratzeko eta bide honetatik jarraitzea posible dela ikusten dugun arren, denboran luzatu beharko genituzke aurretik aipatutako jarduerak benetan eboluzio bat hantzean eta hobekuntzak argi nabaritu nahi baditugu.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguirre, I. (2006). *Modelos formativos en educación artística: Imaginando nuevas presencias para las artes en educación*. Bogotá, Colombian 2006an.
- Aguirre, I. (2015). Hacia una narrativa de la emancipación y la subjetivación desde una educación del arte basada en la experiencia. *Política educativa, Docencia*, 57, 4-15.
- Bernal, J. L. (2015). Análisis crítico del modelo de evaluación LOMCE/ Critical analysis of evaluation model LOMCE. *Avances en supervisión educativa*, 23. https://avances.adide.org/index.php/.../ase_23_04_bernalagudo.pdf -tik berreskuratua [2018/05/15].
- Chomsky, N. (1964). *Current issues in linguistic theory*. The Hague: Mouton.
- Chomsky, N. (1965). *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge-Massachussets: MIT Press.
- Comunicación. *Real Academia Española*. (2017). <http://dle.rae.es/?id=A58xn3c> -tik berreskuratua [2018/04/03].
- Cuxart, F. (2000). *El autismo: aspectos descriptivos y terapéuticos*. [On-line]trineautism-en bertasio elektronikoa]. <http://www.autisme.com/autisme/documentacio/documents/Que%20es%20el%20autismo.pdf> -tik berreskuratua [2018/05/17].
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión internacional sobre la educación para el siglo XXI*. Paris, Frantzia: Ediciones UNESCO.
- El autismo: Definición síntomas e indicios. (2016). Autisme la Garriagan, *Proyecto Autisme la Garriaga*. <http://www.autismo.com.es/autismo/que-es-el-autismo.html> -tik berreskuratua [2018/05/17].
- Ferragut, M. (2014ko maiatzaren 11). La educación artística no busca crear artistas, sino formar personas. *Diario de Mallorca*. <https://www.diariodemallorca.es/mallorca/2014/05/11/educacion-artistica-busca-crear-artistas/931667.html> -tik berreskuratua [2018/05/18]

- Galdón, Miguel. (2014ko ekainaren 7a). Mapa de la Educación Artística en Primaria. [Blog batean argitaratua]. <http://www.miguelgaldon.com/mapa-educacion-artistica-musical-primaria-lomce-curriculo-ley-educactiva/> -tik berreskuratua [2018/05/17].
- Gottesman, S. (2018). How to Teach Art to Kids, According to Mark Rothko. *Creativity*. <https://www.artsy.net/article/artsy-editorial-teach-art-kids-mark-rothko> -tik berreskuratua [2018/05/15].
- Hogward, G. (1983). *Frames of mind: The theory of the multiple intelligences* (3. Edizioa). New York: Basic Books [2011].
- Hymes, Dell H. (1971a). "Competence and performance in linguistic theory", *Acquisition of languages: Models and methods*, Huxley eta E. Ingram (arg.), New York: Academic Press. (pp.3-23).
- Hymes, Dell H. (1971b). "On linguistic theory, communicative competence, and the education of disadvantaged children", in *Anthropological perspectives on education*, M.L. Wax, S.A. Diamond & F. Gearing (arg.), New York: Basic Books (pp.51-66).
- Hymes, Dell H. (1972). "On communicative competence", in J.B. Pride & J. Holmes (arg.), *Sociolinguistics*. Londres: Penguin (pp.269-293).
- Lobato, M. Martínez, M eta Molinosek, I. (2003). El desarrollo de habilidades en las personas con necesidades educativas especiales a través de la expresión plástica. *Escuela Abierta*, (6), 47-70.
http://sid.usal.es/idocs/F8/ART11550/desarrollo_habilidades_personas_con_nee.pdf -tik berreskuratua [2018/02/23].
- Pérez, L. (2004). *La Educación Artística como parte de la atención integral al niño discapacitado*. Camagüey, Cuba: Proyecto Esperanza. <http://files.sld.cu/arteydiscapacidad/files/2009/07/la-educacion-artistica-como-parte-de-la-atencion-integral-al-nino-discapacitado.pdf> -tik berreskuratua [2018/05/03].

- Primeros síntomas. *Asociación Navarra de Autismo*. <http://www.autismonavarra.com/?que-es-ana/> -tik berreskuratua [2018/05/17].
- Sarabia, P. (1995). Las actividades artisticas en educacion especial. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 24, 113-121 <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/117882.pdf> -tik berreskuratua [2018/05/03].
- Silverren, R. (1989). *Developing cognitive and creative skills through arts* (3. Edizioa). [ERIC, Institut of education sciences-en bertsio elektronikoa]. New York: Albin Press. <https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED410479.pdf> -tik berreskuratua [2018/02/19].
- Sheckman, A. (1995). *Insights, art in special education: educating the handicapped* (6. Edizioa). New Jersey: Art educators of New Jersey.
- Stack, H. (2015). The significance of art and creativity for children and young people with special educational needs, disability or disadvantage. *SEND Magazine*. [http://www.thelocaloffer.co.uk/files/files/SEND%20Magazine%20-%20Arts%20and%20Creativity%20-%20Heather%20Stack%2C%20July%202015\(1\).pdf](http://www.thelocaloffer.co.uk/files/files/SEND%20Magazine%20-%20Arts%20and%20Creativity%20-%20Heather%20Stack%2C%20July%202015(1).pdf) -tik berreskuratua [2018/05/15].
- Tayer, E. (2015). *The Arts and SEN Learners: Impact and Implementation*. Cardiff School of Education. Cardiff Metropolitan University <https://repository.cardiffmet.ac.uk/bitstream/handle/10369/8297/THAYER%20Emma%20MAE%207030.pdf?sequence=1&isAllowed=y> -tik berreskuratua [2015/02/24].
- Trastornos del espectro autista. (2017). *Organización Mundial de la Salud-en*. <http://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/autism-spectrum-disorders> -tik berreskuratua [2018/05/17].
- What is the autism spectrum disorder?. (2016). *American Psychiatric Association-etik* <https://www.psychiatry.org/patients-families/autism/what-is-autism-spectrum-disorder> -tik berreskuratua [2018/05/17].

ERANSKINA



**Shectmanen
sailkapena eta haren
arabera ariketa
plastikoen gomendioa**

-
- “Mentally retarded” – Retrasados mentales.
 - El arte debe estar integrado en el programa de la educación total.
 - Actividades estructuradas, repetitivas y con conceptos artísticos básicos.
 - Actividades para trabajar la organización y el cuidado del material.
 - Actividades para trabajar las habilidades motoras fina y gruesa así como para trabajar la coordinación entre mano y ojos.
 - Actividades para trabajar la confianza en sí mismos.
 - Actividades para trabajar la autonomía.

 - “Educable mentally retarded (EMR)” – Retrasados mentales con capacidad de ser educados.
 - Actividades con elementos artísticos.
 - Experiencias sensoriales.
 - Materiales manipulativos.
 - Actividades para trabajar formas y colores.
 - Actividades para trabajar las habilidades motoras.
 - Actividades para expresarse.
 - Actividades para visualizar conceptos propios.
 - Actividades para trabajar la percepción del entorno.

 - “Trainable mentally retarded (TMR)” – Retrasados mentales con posibilidad de mejorar.
 - Actividades que requieran la coordinación entre mano-ojos.
 - Manipulación kinestésica para mediar el estrés.
 - Estimulación sensorial.
 - Actividades para trabajar la habilidad motora gruesa antes que la fina.

- Actividades para identificar colores y formas.
 - Aprender a usar y controlar el pincel.
 - Pintar con elementos artísticos básicos.
- “Elegible for a day training (EDT)” – Elegible para un día de trabajo.
 - Estimulación a través de exposición a repetidas experiencias artísticas usando pinturas y/o tizas.
 - Grabados
 - Realizar figuras de alambre.
 - Construcciones simples.
 - Trabajos minimalistas de “corta y pega”.
 - Introducir ritmos y movimientos.
 - Trabajar las habilidades motoras fina y gruesa.
- “Neurologically impaired (NI)” – Discapacitados neurológicos.
 - Utilizar los sentidos.
 - Evitar materiales brillantes o con destellos que puedan causar distracción.
 - Para los niños con discapacidad motora incluir ejercicios que requieran movimiento.
 - Con los niños hiperactivos dejarles realizar la tarea de pie o en movimiento.
 - Tareas enfocadas a un único propósito; tareas de coordinación mano-ojos, de habilidades motoras, constancia, etc.
 - Hacer uso de elementos táctiles y/o 3D.
- “Perceptually impaired (PI)” – Discapacidad perceptiva.

-
- Sus dificultades perceptuales se asemejan a las de las discapacidades neurológicas, por lo tanto sugiere consultar los tipos de ejercicios planteados ahí.

 - “Orthopedically handicapped (OH)” – Discapacitados ortopédicos.
 - Utilizar material adaptado.
 - Ejercicios para conocer el cuerpo y partes del cuerpo.
 - Ejercicios para expresar las emociones de una manera visual.
 - Ejercicios que requieran una coordinación de ojos y mano.
 - Ejercicios para trabajar la habilidad espacial.

 - “Emotionally disturbed (ED) and socially maladjusted (SM)” – Trastornados emocionalmente y inadaptados sociales.
 - Actividades que trabajen y se adapten a la necesidad de cada niño dependiendo de su estado de ánimo.
 - Actividades para la expresión emocional.
 - Canalizar la tensión mediante actividades artísticas distintas.
 - Trabajar para aprender a apreciar el arte propio y el de otros.
 - Trabajar las habilidades motoras, hábitos de trabajo, uso y cuidado de materiales y procedimientos artísticos básicos.
 - Aprender a respetar las propiedades de uno mismo, de los demás y el material común.
 - Conseguir un sentimiento de mérito y de valía.
 - Aprender a trabajar en equipo, a aceptar los estándares establecidos por la sociedad.
 - Mejorar el comportamiento.

- “Visually handicapped (VH) – Discapacitados visuales.
 - Ciegos
 - Se le debe dejar dibujar a su manera con los materiales que necesite, dejándole hacer uso de percepción y experiencia.
 - Trabajar la percepción sensorial.
 - Trabajar el conocimiento de sí mismos.
 - Ciego parcial
 - Adaptar materiales.
 - Actividades que stimulen el tácto.
 - Tener un entorno intenso en cuanto a estímulos.
 - Actividades que trabajen la capacidad espacial y las texturas del entorno.
 - Trabajos 3D.
 - Dibujar y pintar utilizando material adaptado.
 - Enseñarles a apreciar el arte con trabajos que puedan ser percividos a la vez a traves de los sentidos.

- “Auditorilly handicapped (AH)” – Discapacitados auditivos.
 - Enseñar arte a éstos niños es lo mismo que a cualquier otro, pero se debe tener en cuenta la manera de explicar la tarea.
 - Enseñarles un modelo terminado (del dibujo por ejemplo) al principio de la clase, para que lo visualicen y entiendan el procedimiento.
 - Explicar cada paso uno a uno, despacio y en orden.

- “Multiplly handicapped (MH)” – Con discapacitado múltiple.

-
- Hacer uso del arte, de sus trabajos para trabajar el autoestima y la confianza en si mismos.

 - “Communications handicapped (CH)” – Discapacidad comunicativa.
 - Actividades protagonizadas por marionetas.
 - Elementos artísticos que tengan relación espacial, texturas, conceptos.
 - Organización en secuencias progresivas para fomentar la verbalización.
 - Partir de preguntas guiadas como “¿Quién? ¿Qué? O ¿Dónde? En busca de respuestas formadas en frases completas.

 - “Chronically ill (CI)” – Enfermo cronico.
 - No sugieren actividades artísticas.

 - “Preschool handicapped” – Discapacidad temprana.
 - Al ser una descripción tan amplia, no sugiere actividades artísticas.

 - “Autistics” – Austistas.
 - No sugieren actividades artísticas.

(Shectman, 1995, 2.1-2.15)

ERANSKINA

II

**Autismo La Garriaga
elkartearen arabera
haurrek izan
ditzaketen sintomak**

- Gainontzeko haurrekiko interes falta Haur eta Lehen hezkuntzan.
- Ez dituzte interesak elkarbanatzen (ez dute hatzez seinalatzen arreta deitzen diena).
- Joku sinbolikoarik eza (panpinei jaten eman, sukaldatzera jolastu, jostailuzko autoekin jolastu benetakoak balira bezala, etab.).
- Begi kontakto gutxi dago eta ez diote igorlearen aurpegi-keinuei erreparatzen elkarrekin egotean ezohiko zerbaiti begira. Ez dute irrifarre soziala egiten ohi.
- Hizkuntza, baldin badute, literala da (ez dituzte txantxak, izkirimiriak, esanahi bikoitzak edo metaforak ulertzen).
- Kontaktu fisikoa ekidin edo oso gutxi gustatzen zaie. Ukimen, usaimen, dastmen eta entzumenean hipersentsibilitatea izan ohi dute. Askotan sentsibilitate gutxi dute minarekiko.
- Haien gurasoen ahotsarekiko gutxi eragiten dute, honek entzumen desgaitasun bat dagoelaren susmoa ekar dezake.
- Interes ezohikoak dituzte. Gainera errepikakorrak eta beste inorenekin bat ez datozenak izan ohi dira.
- Jarrera arraro, errepikakor eta auto-estimulatzailleak aurkeztu ditzakete, hala nola, kulunkatzea, eskuak astintzea edo oin-puntetan ibiltzea beste zenbaitzuen artean.
- Maila intelektual handiago bat dutenek, desberdinak direla nabaritzen dute eta ez dute zer gertatzen zaien ulertzen. Ohol sozialean txertatzen zein bat egiten ez dakiten puzlearen pieza dira.

(Autisme La Garriaga, 2016).